

Auzoz Auzo


Altza

Larraitz Garmendia [fnoa.: 391267]

Otsailerako antolatu ditu aurten Altza Irrati Tailerrak irrati mintegiak. Bigarren aldiz, irrati munduko profesionalak gure auzora hurbilduko dira, mintegi honetan parte hartzen duten gazteei beraien lana modu praktikoan erakusteko asmoz. Ikastaroak euskaraz eta erdaraz izango dira aurten. Euskarazkoetan honako irrati langile hauek arituko dira: Jaime Otamendi, Itziar Arteaga eta Alberto Gorritiberea. Erdarazkoetan, berriz, Karmele Aranburu, Viki Pizarro, Lujan Goñi, Gorka Azaola eta Luis Angel García.

Bigarren aldiz, irrati munduko profesionalak auzora hurbilduko dira

Irrati tailerra



Irrati munduko kazetari ezagunak gerturatuko dira aurten Altzara.

Herrera

Kontame aldizkaria

Zazpigarren zenbakia kaleratu berri du Kontame aldizkaria. Argitalpen honetako lagunek adierazi dutenez, ikuspuntu aldaketa nabarmena izan da zenbaki berri honetan. Orain arte gai orokorrak landu badira, hemendik aurrera Bidebieta eta inguruko berriak izango dira nagusi.

Kontame aldizkaria gaztelekuan, kultur etxean edo liburategietan topa daiteke.

Hiru danborrada

Herrerako eta Bidebieta-ko auzo elkarteek 2 danborrada kaleratuko dituzte Sansebastianetan. Bidebieta elkarte-ko lagunak 00.00etan hasiko dira danborrada jotzen

Serapio Mujika pasealekuan. Herreran, berriz, Leosiñeta danborradaren bisita jasoko dugu 02.00ak aldera Txingurri inguruetan. Urtero, Euskal-Giroa danborradarekin bat egin ohi dute Leosiñetako lagunak. baina aurten, Euskal-Giroak danborradarik kaleratuko ez duenez, Leosiñetak joko du bakarrik.

SAN SEBASTIAN BEZPERAKO AFARI KOTILOIA LONDRES HOTELEAN

98 - 01 - 19



MENUA - APERITIBOIA:

- Barazki lasagna Idiazabalgo gaziaz gainerrea eta gari saltsan
- Cava kopa
- Izokin, rape eta espinaka erroilutxo, sagardo olio-ozpinarekin
- Aginagako angulak
- Rossini solomiloa frigitutako garaiko barazkiekin
- Txokolate gaileta, eta etxeko praline izozkiaz lagundutako gozokia
- Kafe gozagarriak

EDARIAK:

- LAGUNILLA ardo gorria, RIOJA BORDON Rva.91 ardo beltza, GRAN CODORNIU Cava

KOTILOIERAKO BOLTSA • ORKESTRAREKIN DANTZA ETA DANBORRADA
CAVA BARRA LIBREA • EGUSENTIAN BARATXURI ZOPA

Prezioa, pertsonako: 14.000 pezeta + %7 BEZA
Erreserbak egiteko telefonoa: 426989

TABERNA

AMARA TXOKO

Amara Zaharrea zerbitzu berria dastatu nahi baduzu, zatoz Amara Txoko tabernara.

Pintxotan, kazolatxotan, brotxetetan eta otartekotan aukera zabala.



Amara kalea 3, AMARA ZAHARRA • Tfnoa.: 47 42 99

Balleneros
boutique

Baleazaleak 10. Tfnoa.: 47 20 89 20011 Donostia